En este sentido, no obstante, se ha considerado oportuno volver a emitir los dos últimos informes citados en el párrafo anterior, toda vez que garantizan el ajuste económico y jurídico imprescindible para la seguridad y viabilidad jurídica necesaria del proyecto. Por el contrario, se ha considerado que no es necesario volver a solicitar los informes del Departamento de Cultura y Política Lingüística y del Organismo Autónomo Emakunde ya que la aplicación del principio de economía procesal aconseja en este caso obviar la emisión de tales informes.


TRAMITACION PARLAMENTARIA DEL PROYECTO DE LEY APROBADO POR EL CONSEJO DE GOBIERNO

Para concluir, teniendo en cuenta que las medidas contenidas en el presente Anteproyecto de Ley se consideran de carácter urgente e inaplazable para el buen funcionamiento de la administración, se estima oportuno proponer al Consejo de Gobierno que, junto con la aprobación del Anteproyecto de Ley de medidas presupuestarias urgentes en materia educativa para el ejercicio 2019, acuerde su inmediata remisión al Parlamento Vasco para que sea tramitado directamente por el procedimiento de lectura única ante el Pleno de la Cámara, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 163.3 del Reglamento del Parlamento Vasco, ya que, esta disposición no afecta al ordenamiento de las Instituciones de la Comunidad Autónoma, al régimen jurídico de las Instituciones Forales, al régimen electoral, ni a los derechos, deberes o libertades de la ciudadanía.

CONCLUSIÓN

En conclusión, atendiendo a todas las consideraciones realizadas en el presente documento, se ha elaborado el Anteproyecto de Ley de medidas presupuestarias urgentes en materia educativa para el ejercicio 2019, que se adjunta, y que se somete a la aprobación del Consejo de Gobierno.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de febrero de 2019.



Hernando Lacalle Edeso
DIRECTOR DE PRESUPUESTOS
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMÍA

**MEMORIA-TXOSTENA, HEZKUNTZA-ALORREAN 2019 EKITALDIRAKO
PRESAKO AURREKONTU-NEURRIEI BURUZKO LEGEAREN
AURREPROIEKTUARI BURUZKOA**

AURREKARIAK

2019ko urtarrilaren 29an, Gobernu-Kontseiluak onartu zuen 2019 ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzko lege-proiektua. Halaber, Gobernu-Kontseiluak, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 163.3 artikuluekin bat etorritik, eskatu zuen zuzenean irakurraldi bakarraz izapidetu dadin Ganberaren Osoko Bilkuraren aurrean.

Lege-proiektu horren helburua zen xedapen batzuk ezartzea, alde batetik Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018rako aurrekontu orokorrak 2019ra luzatzeko araubidea osatzeko, eta bestetik Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legea osatzeko, zeinaren indarraldia 2019ko ekitaldira luzatzen baita.

Lege-proiektu horretako neurrien artean, gastu-baimen batzuk eguneratzen ditu (langileen ordainsariak, hartzeko publikoak edo hezkuntza-itunen modulu ekonomikoak areagotzea); Eusko Legebiltzarraren eta UPV/EHUren 2019ko ekitaldirako aurrekontu-zuzkidurak finkatzen ditu, bai eta prestazio ekonomiko batzuen zenbatekoak, (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta). Azkenik, ekitaldi honetarako tasen zenbatekoa eguneratzen du. Hori guztia hainbat xedapenen bitartez egiten da. Xedapen horiek ez dituzte aldatzen indarreko aurrekontuen gastuen eta diru-sarreraren egoera-orriak, alegia, luzatutako aurrekontuena, horien betearazpen-araubidea osatzen baitute (Jaurlaritza eta Ogasun eta Ekonomia Saila gaitzen ditu behar diren aurrekontu-eragiketak egiteko).

Hala ere, araudiaren bideragarritasuna lortzeko asmoz eta proiektu horretan sartutako neurriak (horiek guztiak aurrekontu-izaerakoak eta eduki homogeneoak baina berezko ezaugarriekin) indibidualizatzea bermatzeko asmoz, iritzi da komenigarria eta egokia dela lege-proiektu hori bertan behera uztea eta hiru lege-proiektu egitea eta onartzea; izan ere, lege-proiektu horietan neurriak bereizita sartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko 2018 ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren luzapen-aldiko aurrekontu-jarduketara osatzeko. Neurri horiek lege-lerruna izan behar dute, aplikatuko badira. Izan ere, agindutako politika publikoak garatzen eta zerbitzu publikoak ematen jarraitu nahi da.

Lege-xedapenen horien artean, legearen aurreproiektu honetan hezkuntza-alarrean presako aurrekontu-neurriak gehitzen dira.

XEDAPENAREN JUSTIFIKAZIOA ETA IZAERA

2019. urtea Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektua onartu gabe hasi denez, automatikoki jarri da indarrean luzapen-araubidea, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren IX. tituluan jasotzen dena (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen du testu bategin hori). Arau horrek aurreikusten duenez, gerta daiteke ekitaldi baten hasieran ekitaldi horretarako aurrekontuak onartu gabe egotea eta aurreko ekitaldiko aurrekontu orokorren legearen indarraldia ekitaldi horretara luzatzea. Indarraldia, nolana ere, luzapen-araubidea oro har erregulatzen duen araudiari jarraituz luzatuko da beti.

Hain zuzen, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren IX. tituluaren helburua da aurrekontu orokorren luzapena oro har arautzea, eta aurreko ekitaldiko aurrekontu orokorren legearen indarraldiaren luzapena osatzea; horretarako, oinarritzko arau eta adostasun-arau jakin batzuk ezartzen ditu, luzapen-aldian aplikatzeko. Arau horiek modua ematen dute aurrekontua gauzatzeko; horrela, aurreko ekitaldietatik edota luzatutako ekitaldian amaitu ez ziren programa edo jarduketetatik eratorritako egitura-gastuak eta aurrekontu-konpromisoak estal daitezke. Arauok, hori bai, behin-behinekoak izango dira. Horrek, praktikan, zenbait ondorio eragiten ditu, hala nola aurrekontu-zuzkidura batzuk izoztea, eta baldintzatu egiten du luzatutako arauaren aplikazioa (zorpetzeko eta bermeak emateko mugak, aurrekontu-plantillak, ordainsarien igoera etab.) bai eta aurreko ekitaldiko aurrekontuetan egitea aurreikusi ez ziren jarduketak gauzatzeko aukera ere.

Horregatik, aintzat hartuta gobernua luzapenak irauten duen bitartean ere premiei erantzuteko betebeharra duela, komenigarria eta egokia da neurri sorta bat ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko 2018 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren luzapen-aldiko aurrekontu-jarduketa osatzeko. Neurri horiek lege-lerruna izan behar dute, aplikatuko badira.

Gauzak horrela, xedapen horrek bat etorri behar du Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginarekin (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen du testu bategina), eta, zehazki, testu bategin horretako IX. Tituluarekin, luzapenaren araubidea erregulatzen baita bertan. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen edukiarekin ere bat etorri beharko du; izan ere, araubide horri jarraikiz (127. artikulua), indarrean egongo da 2019ko ekitaldian ere; alegia, luzapenean.

Aipatutako testu bateginaren xedea Aurrekontu Orokorren luzapena arautzea da, oro har. Zehazki, haren IX. Tituluak aurrekontuak gauzatea ahalbidetzen du hein batean, Administrazioaren jarduna geraraztea saihestuz. Alabaina, lege-aurreproiektu honekin, konponbidea eman nahi zaie luzapenak eragindako arazo jakin batzuei, konponbidea berehala behar baitute, baita aurrekontuen luzapenaren araubidea osatzeko lege-lerruneko arau bat ere, luzatutako aurrekontuen legearen indarraldiaren luzapena modulatu eta luzatutako aurrekontuan krediturik ez duten gastu zehatzak baimentze aldera.

Horrenbestez, lege-lerruneko arau bat tresna egokia da xedapen gehigarriak ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko ekitaldirako Aurrekontuak 2019ra luzatzeko araubidean eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legean (aurrekontu horren indarraldia 2019ko ekitaldira luzatzen

du); izan ere, Legebiltzarra da ekitaldi ekonomiko bateko gastuei aurre egitera bideratutako kredituak baimentzeko eskumena duena. Horrez gain, indarrean dagoen aurrekontu-araubidearen koiunturazko aldaketak baimentzeko eskumena du.

Aipatutako ondoreetarako, lege-aurreproiektu hau onartzearekin batera, ezinbesteko oreka bilatu nahi da hauen artean: alde batetik, aurrekontua erabiltzea plangintzaren eta koiunturazkoak ez diren neurrien zerbitzura dagoen politika ekonomikoaren tresna gisa, eta bestetik, Legebiltzarra errespetatzea, ekitaldi ekonomikoko gastuei aurre egitera bideratutako kredituak baimentzeko eskumena duen erakundea den aldetik.

Hasiera batean, zalantzak sor daitezke xedapen honen izaeraren inguruan; hau da, aurrekontu-arau bat edo, ostera, aurrekontuan eragina duen arau berezi bat den.

Horren inguruan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 6.3. artikulua honako hau ezartzen du Euskadiko Aurrekontu Orokorren Legeetan jasotako arauak aldatzeko edo osatzeko legegintzako arauari buruz: «Horien izaera eta erregimen berbera edukiko dute, indarrean egongo diren epea edozein motatakoa izanda ere: arrunta nahiz luzatua». Horren arabera, argi dago lege-aurreproiektu hau aurrekontu-izaerako xedapena dela. Hori bai, aurrekontu-izaera duen legegintzako arau bat den arren, ez da Euskadiko Aurrekontu Orokorren lege bat; izan ere, bere xedea ez da Aurrekontu Orokorrak onartzea, Aurrekontu Orokorrak honela ulertuta: «Ekonomia- edo aurrekontu-ekitaldi bakoitzean Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko ekonomia-jardueraren programa gidaria osatzen duen erabaki multzoaren agiri bidezko finantza- eta kontularitza-adierazpena da» (lege-testu bereko 5.1. artikulua).

Horrenbestez, arau honek ez ditu sarreraren eta gastuen egoera-orri zehatzak onartzen, baizik eta, luzapen-araubidea arautzen duten arauen arabera sarreraren eta gastuen egoera-orriak oinarri hartuta, aldaketa eta egokitzapen osagarri batzuk gauzatzen ditu. Hala, gastu-baimen batzuk eguneratzen ditu (hezkuntza-itunen modulu ekonomikoak areagotzea) eta UPV/EHUren 2019ko ekitaldirako aurrekontu-zuzkidurak finkatzen ditu. Horrez gain, azkenik, Jaurlaritza gaitzen du behar diren aurrekontu-eragiketak egiteko.

Alabaina, aurrekontu-izaerakoa denez, beste arau mota horren izaerakoa ere bada zati batean.

AURREPROIEKTUAREN EDUKIA

Lege-aurreproiektuak gastu jakin batzuk egiteko baimena ematen du, luzatutako aurrekontuetako gastuen egoera-orriko zenbatekoa gaindituta, eta behar den finantzaketa aurreikusten du.

a) Artikuluak.

1. artikuluan zehazten da 2019ko ekitaldirako Euskal Herriko Unibertsitateari bideratutako aurrekontu-zuzkidura. Aldatu egiten du aurreikusitako zenbatekoa luzatutako aurrekontuetan, zuzkidura horren igoera finantzatzeko xedez.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Herriko Unibertsitateari emandako aurrekontu-zuzkidura 303.994.184 eurokoa izan zen 2018an. Ostera, 2019ko ekitaldirako aurreikusitako zuzkidura, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 90.etik 93.era bitarteko artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, 314.040.099 eurokoa da.

2. artikulua eguneratu egiten diru itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomikoen osagaien urteko zenbatekoak, indarrean dauden eskola-unitateen egokitzeapenei estaldura emate aldera. Artikulu horren osagarri da lege-eranskin bat, modulu ekonomikoak zehazten direna; horiek dira modulua osatzen duten kontzeptu guztien gehieneko ekonomikoak.

b) Xedapen gehigarriak.

Lehenengo xedapen gehigarriak osatu egiten du araua, neurriak gauzatzeko behar den finantzaketa aurreikusita. Hori, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 133. artikuluari jarraikiz egingo da, eta, hala badagokio, diruzaintzako gerakinen kargura.

Aipatutako 133. artikuluko horren arabera, Aurrekontu Orokorren luzapen-aldian, foru-aldundiek Euskadiko Ogasun Nagusiari egin beharreko ekarpenen araubidea Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak urte horretarako ezartzen duena izango da.

Lege-aurreproiekturako kalkulaturako kostua 29.917.012 eurokoa da, memoria honetan jasota dagoen eragin ekonomiaren inguruko analisisian ezarritakoaren arabera.

Aurreikusitako neurriak finantzatu ahal izateko behar diren kredituak –2019ko ekitaldirako luzatutako gastuen egoera-orrikoa baino zenbateko handiagokoak– Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2018ko urriaren 11ko saioan 2019ko ekitaldirako aurreikusitako ekarpen handienengatik lortutako sarreraren kargura finantzatuko dira, 2018ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari aurrekontuaren sarreraren egoera-orrian aurreikusitako zifrak gainditzen dituztenak, bai eta diruzaintza-geldikinen kontura ere.

Ekitaldi honetan diru-sarrera handiagoak daudenez, arau honetan jasotako neurriak finantzatu ahal izango dira; horrez gain, dena dela, bete egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoak aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasankortasunari dagokionez ezarri dituen helburu eta konpromisoak.

Eta bigarren xedapen gehigarrian baimena ematen zaio gobernuari behar diren aurrekontu-aldaketak egiteko, diru-sarreraren eta gastuen egoera-orriak lege honetan ezarritako xedapenetara egokitze aldera.

Halaber, berariaz ezartzen da Legebiltzarrari derrigorrean jakinarazi behar zaizkiola xedapen honen harira egindako eragiketak.

c) Azken xedapenak.

Amaitzeko, Jaurlaritzari baimena ematen zaio araua garatu eta betearazteko (azken xedapenetako lehenengoa) eta adierazten da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko dela indarrean (azken xedapenetako bigarrena).

AURREPROIEKTUAREN ERAGIN EKONOMIKOAREN ANALISIA

Lege-aurreproiektuak gastua handitzea dakarten zenbait neurri aurreikusten ditu, aurreko ekitaldiko gastu-egoera luzatuei dagokienez, baita tasen zenbatekoen eguneratzea ere, diru-sarrerak apur bat igoaraziz. Zentzu horretan, aurreikusitako neurriak finantzatzeko behar diren baliabideak ere aurreikusten ditu.

a) Gastuen egoera-orria handitzea.

a.1) EHUren aurrekontu-zuzkidura handitzea (1. artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoak 303.994.184 euroko aurrekontu-zuzkidura bideratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatera 2018ko ekitaldian. 2019ko ekitaldian, berriz, 314.040.099 euroko aurrekontu-zuzkidura bideratzea aurreikusita dago.

Horrenbestez, aurrekontu-zuzkidura gehigarria 10.045.915 eurokoa da.

a.2) Itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomikoak eguneratzea (2. artikulua).

Itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomikoak eguneratzeak izango duen eragin ekonomikoa 5. artikuluan eta aurreproiektuaren eranskinean jasota dago, eta 19.871.097 eurokoa da.

b) Finantzaketa.

Laburbilduz, aurreproiektuan aurreikusitako neurriak aplikatzetik eratorritako gastuaren guztizko kostua **29.917.012** eurokoa da, honela xehatua:

EHUren zuzkidura handitzea:	10.045.915
Hezkuntza-moduluak eguneratzea:	19.871.097
Total	29.917.012

Kopuru hori finantzatzeko, aurreikusitako gainontzeko aurrekontu-sarrerez gain (Europar Batasuneko funtsak, transferentziak, diru-sarrera propioak eta zor publikoa), erabilgarri daude Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2019ko ekitaldirako aurreikusitako ekarpenak, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuak onartu eta Euskadin indarrean dagoen aurrekontu-araubideko lege-xedapenen testu bateginaren 133. artikulua araberak. Ekarpenera horiek 2018ko urriaren 11ko saioan onetsi zituen Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak, martxoaren 23ko 2/2007 Legeak ezarritako metodologiarekin bat eginez, eta 10.155.064.469 eurokoak dira.

Aipatutako zenbateko horrek gainditu egiten du foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko aurrekontu orokorretako diru-sarreren egoera-orriari egindako ekarpena (9.523.345.813 euro), baita ekarpenen aurre-likidazioan aurreikusitako zenbatekoa ere (9.835.677.808 euro), Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak 2018ko urriaren 11n egin zuen saioan onetsitako tributu itunduen bilketa-itxierako aurreikuspenak oinarritzat hartuta.

Ondorioz, 2019ko ekitaldi honetan diru-sarrera gehiago aurreikusteak aukera ematen du aurreproiektuan jasotako aurrekontu-neurriak aplikatzetik eratorritako gastu-xedapenei aurre egiteko.

AURREPROIEKTUAK AURREKONTU-EGONKORTASUNEAN ETA FINANTZA-JASANGARRITASUNEAN IZANGO DUEN ERAGINAREN ANALISIA

Lege-aurreproiektuaren eragin ekonomikoak bete egiten ditu, halaber, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunaren arloko arauen printzipioak; hau da, defizita, zorra eta gastu-araua, batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2018-2019ko Ekonomia eta Finantza Plana, bestetik.

Horrenbestez, xedapen hau onestetik eratorritako gastu-baimenak handitzea 2019ko ekitaldirako enplegu ez finantzarioen hazkundearen mugara egokituko da, eta % 2,7an ezarri da hazkunde hori ekitaldi honetarako. Aipatzekoa da kontuan hartu dela hidrokarburoen zerga berezian egondako arau-aldaketa, eta, beraz, zerga horrekin bildutakoak hazkunde iraunkorra izango duela 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko zerga itundua baita.

Aurrekontu-printzipio hori eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2018-2019ko Ekonomia eta Finantza Plana betetzearen lehen ondorioa da 2019ko aurrekontuaren exekuzioa kontabilitate nazionalaren aurrekontu-oreka kontuan hartuz egingo dela, estatuarekin 2019rako adostutako defizita BPGren % 0,1 den arren.

Bigarrenik, aintzat hartuta aurretik aipatutako hipotesiak, kalkulatzeko da zor-helburua BPGren % 13,2ra iritsiko dela ekitaldi hau ixten denean, 2019rako adostutako zor-helburua % 13,8koa den arren.

AURREPROIEKTUAREN IZAPIDETZEA

Lege-aurreproiektu honen izapidetzean hezkuntza-alorreko neurriak sartu dira, besterik ez. Neurri horiek 2019 ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzko lege-proiektuan sartu ziren eta Gobernu-Kontseiluak onartu zuen 2019ko urtarrilaren 29an. Lege-proiektu horri buruzko aldeko txostenak honako hauek izan ziren: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren txostena eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.

Hala nola, ordea, iritzi da egokia dela aurreko paragrafoan esandako azken bi txostenak berriro egitea, txosten horiek proiektuaren segurtasuna eta bideragarritasun juridikoa lortzeko doikuntza ekonomikoa eta juridikoa bermatzen dituztelako. Aitzitik, iritzi da ez dela beharrezkoa Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen txostena berriro eskatzea; izan ere, prozesu-ekonomiaren printzipioa aplikatzeak kasu honetan gomendatzen du txosten horiek ez egitea.

LEGE BILTZARREAN IZAPIDETZEA GOBERNU-KONTSEILUAK
ONARTUTAKO LEGE-PROIEKTUA.

Amaitzeko, aintzat hartuta lege-aurreproiektu honetan jasotako neurrien izaera presakoa eta atzeraezina dela administrazioak ondo funtziona dezan, egoki deritzogu gobernu-kontseiluari proposatzea, hezkuntza-alorrean 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzko lege-aurreproiektua onartzearekin batera, proiektu hori Eusko Legebiltzarrera berehala igortzea ere erabaki dezala, irakurketa bakarraren prozeduraren bitartez izapidetu dadin Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, Eusko Legebiltzarraren erregelamenduaren 163.3. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz; izan ere, xedapen horrek ez du eraginik autonomia-erkidegoko erakundeen antolamenduan, foru-erakundeen araubide juridikoan, hauteskunde-araudian edo herritarren eskubide, betebeharrak edo askatasunetan.

ONDORIOA

Horiek guztiak horrela, beraz, eta dokumentu honetan egindako ohartarazpen guztiak aintzat hartuta, hezkuntza-alorrean 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzko legearen aurreproiektua egin da. Testua memoria honi erantsi zaio, eta Gobernu Kontseiluaren esku jarri da, onar dezan.

Gasteizen, 2019ko otsailaren 4an.

Hernando Lacalle Edeso jauna
AURREKONTUETAKO ZUZENDARIA
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA



**INFORME DE ASESORÍA JURÍDICA /
AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN TXOSTENA**

**LEGE-PROIEKTUA,
HEZKUNTZA ALORREAN 2019ko
EKITALDIRAKO PRESAKO
AURREKONTU-NEURRIEI
BURUZKOA**

**PROYECTO DE LEY DE
MEDIDAS PRESUPUESTARIAS
URGENTES PARA EL EJERCICIO
2019 EN MATERIA EDUCATIVA**



INFORME JURÍDICO RELATIVO AL ANTEPROYECTO DE LEY DE MEDIDAS PRESUPUESTARIAS URGENTES EN MATERIA EDUCATIVA PARA EL EJERCICIO 2019

I. INTRODUCCIÓN

El presente Informe se dirige a examinar el anteproyecto de referencia, dando así cumplimiento a lo establecido en el artículo 7.3 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General y de conformidad a lo dispuesto en el art. 10 del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco. De acuerdo a dicha normativa, dicho informe tiene por objeto aportar las bases jurídicas en las que la iniciativa ha de sustentarse y analizará el fundamento objetivo de la misma, la adecuación de su contenido al ordenamiento jurídico y la observancia de las directrices de técnica normativa.

Se emite el informe por la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Economía, de conformidad con las funciones que tiene atribuidas por el art. 6.1 j) del Decreto 168/2017 de 13 de abril, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Economía.

II. CONSIDERACIONES JURIDICAS

El presente anteproyecto incluye una parte de las medidas dirigidas a complementar el régimen de prórroga presupuestaria que se incluyeron en el Proyecto de Ley de medidas presupuestarias urgentes para el ejercicio 2019, aprobado por el Consejo de Gobierno con fecha 29 de enero de 2019, y que contó con el informe favorable del servicio jurídico del Departamento de Hacienda y Economía.

Por tanto, no habiéndose observado modificación alguna en relación con el contenido del anteproyecto de ley informado en su día, nos remitimos a lo expresado en el informe jurídico emitido con fecha 25 de enero de 2019, y que consta en el expediente

del Proyecto de Ley de medidas presupuestarias urgentes para el ejercicio 2019.

III.- CONCLUSIÓN


De todo lo expuesto puede concluirse la adecuación al ordenamiento jurídico vigente del Anteproyecto de Ley de medidas presupuestarias urgentes en materia educativa para el ejercicio 2019.

Este es el informe que se emite y se somete a cualquier otro mejor fundado en Derecho.

Vitoria-Gasteiz, 4 de febrero de 2019.



GEMA FERNANDEZ TRUEBA
Asesoría Jurídica



Vº Bº
Mª LUZ RUIZ MELENDO
DIRECTORA DE SERVICIOS



HEZKUNTZA-ALORREAN 2019ko PRESAKO AURREKONTU-NEURRIEI
BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI DAGOKION TXOSTEN
JURIDIKOA

I. SARRERA

Txosten honen xedea da goian adierazitako aurreproiektua aztertzea, hartara, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan araututakoa betetzeko, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aipatutako araudiarekin bat etorritik, txostenaren xedea da ekimenaren oinarri juridikoak ematea, eta, horrez gain, honako hauek ere aztertuko ditu: haren oinarri objektiboa, edukia ordenamendu juridikoarekin bat datorren eta arautzeko teknikaren jokabideak betetzen dituen.

Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak txostena eman du, Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen dituen apirilaren 13ko 168/2017 Dekretuko 6.1 j) artikulua egozten dizkion funtzioekin bat.

II. OINARRI JURIDIKOAK

Aurreproiektuak neurri multzo bat ezartzen du aurrekontu-luzapenaren erregimena osatzeko. Neurri horiek 2019 ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzko lege-proiektuan sartu ziren eta Gobernu-Kontseiluak onartu zuen 2019ko urtarrilaren 29an. Lege-proiektu horri buruzko aldeko txostena egin zuen Ogasun eta Ekonomia Saileko zerbitzu juridikoak.

Beraz, lege-aurreproiektu horren edukiarekin konparatuz aldaketarik ikusi ez dugunez, 2019ko urtarrilaren 25ean emandako txostenak aipatutakoari gagozkio, 2019

ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzko lege-proiektuaren espedientean jasotzen dena.

III.- ONDORIOAK

Azaldutako guztia kontuan hartuta, gure ondorioa da hezkuntza-alorrean 2019ko presako aurrekontu-neurriei buruzko lege-aurreproiektu hau bat datorrela indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin.

Txosten hau idatzi da, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste baten mende jarri.

Gasteizen, 2019ko otsailaren 4an.

GEMA FERNANDEZ TRUEBA

Aholkularitza juridikoa

O.E.

M^a LUZ RUIZ MELENDO

ZERBITZU-ZUZENDARIA



VI

INFORME DE LEGALIDAD /

LEGEZKOTASUN TXOSTENA

**LEGE-PROIEKTUA,
HEZKUNTZA ALORREAN 2019KO
EKITALDIRAKO PRESAKO
AURREKONTU-NEURRIEI
BURUZKOA**

**PROYECTO DE LEY DE
MEDIDAS PRESUPUESTARIAS
URGENTES PARA EL EJERCICIO
2019 EN MATERIA EDUCATIVA**



INFORME DE LEGALIDAD SOBRE EL ANTEPROYECTO DE LEY DE MEDIDAS PRESUPUESTARIAS URGENTES EN MATERIA EDUCATIVA PARA EL EJERCICIO 2019

11/2019 DDLCN - IL

I. INTRODUCCIÓN

Por el Departamento de Hacienda y Economía, se ha solicitado a la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, la emisión del preceptivo informe de legalidad en relación con el Anteproyecto de Ley de referencia.

Se emite el presente informe en virtud de las funciones encomendadas por el artículo 5.1.a) de la Ley 7/2016, de 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco al Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco, que está adscrito a la Viceconsejería de Régimen Jurídico; y con base en las competencias atribuidas a la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo, por el artículo 14.1.c) del Decreto 71/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno. Así como en virtud de lo dispuesto en el artículo 11.1 del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco. Y ello porque, como señala este último artículo: "En los proyectos de disposiciones de carácter general en los que no corresponda emitir dictamen a la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, corresponde al Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco la emisión, dentro del procedimiento de elaboración, del preceptivo informe de legalidad".

II. CONSIDERACIONES SOBRE EL ANTEPROYECTO DE LEY

A) Objeto

El Anteproyecto de Ley sometido a informe, que consta de dos artículos, dos disposiciones adicionales, dos disposiciones finales y un anexo, tiene por objeto el establecimiento de una serie de disposiciones complementarias al régimen de prórroga de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2018 durante el ejercicio 2019, así como a la Ley 5/2017, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2018, que extiende su vigencia al ejercicio 2019. En concreto, se trata de una serie de medidas destinadas a solventar algunos problemas ocasionados por la prórroga cuya solución se considera urgente e inaplazable y que requieren una norma de rango legal para su aplicación, tales como la fijación de la dotación presupuestaria para la UPV/EHU o la actualización de los componentes de los módulos de los conciertos educativos.

B) Tramitación

El procedimiento de elaboración y aprobación de proyectos de ley es la vía que permite al gobierno autonómico participar en la función legislativa y, por tanto, articular sus políticas públicas a través de normas con rango de ley.

Consecuentemente, el presente anteproyecto de Ley debe someterse a la toma en consideración del Consejo de Gobierno acompañado de los informes preceptivos, las memorias previstas y los antecedentes precisos para que dicho órgano, que decidirá sobre su aprobación final en la misma sesión, pueda pronunciarse sobre la necesidad y oportunidad de la disposición (artículos 12 y 13 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General).

Asimismo, procede recordar que, como sucede con toda ley presupuestaria, de conformidad con lo dispuesto por el artículo 3.1.a) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, el presente anteproyecto está expresamente exceptuado de la obligación de solicitar el dictamen de dicho órgano consultivo. Razón que justifica el presente Informe de Legalidad, como ya hemos indicado al analizar en la introducción las normas en que el mismo se fundamenta.

C) Naturaleza jurídica del Anteproyecto

El Texto Refundido de las Disposiciones Legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, regula en su Título IX (artículos 127 a 134) el régimen de prórroga de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicha regulación posibilita la ejecución presupuestaria tanto en relación con los gastos de estructura como de los compromisos derivados de ejercicios anteriores y de los programas o actuaciones que no hayan debido finalizar en el ejercicio prorrogado.

Ahora bien, debido a su provisionalidad, supone la congelación de ciertas dotaciones presupuestarias y la imposibilidad de desarrollar actuaciones cuya realización no fue prevista en los presupuestos del ejercicio anterior.

En este sentido el presente Anteproyecto establece una serie de disposiciones complementarias al régimen de prórroga de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2018 durante el ejercicio 2019, así como a la Ley 5/2017, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2018, que extiende su vigencia al ejercicio 2019. Dichas medidas se circunscriben, como ya se ha dicho, a determinar la fijación de la dotación presupuestaria para la UPV/EHU o la actualización de los componentes de los módulos de los conciertos educativos.

Esta norma no procede a aprobar unos concretos estados de ingresos y gastos sino que, sobre la base de unos estados de gastos e ingresos determinados en función de las normas que regulan el régimen de prórroga, lleva a cabo una serie de modificaciones y adecuaciones complementarias.

Así pues, en relación con la naturaleza jurídica del citado anteproyecto, hay que tener en cuenta que, conformidad con el artículo 6.3 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, en el supuesto de que existan normas legislativas de modificación o complemento de las contenidas en las Leyes de Presupuestos Generales de Euskadi, aquéllas tendrán la misma naturaleza y régimen que éstas, con independencia de cuál sea el período de vigencia, ordinario o prorrogado, en que incidan.

A la vista de lo anterior y, teniendo en cuenta el objeto del anteproyecto, es evidente que la norma sometida a informe tiene la misma naturaleza y régimen que las Leyes de Presupuestos.

D) Examen del contenido.

El Anteproyecto de Ley sometido a informe consta de una exposición de motivos, una parte dispositiva que incluye dos artículos, y una parte final integrada por dos disposiciones adicionales dos disposiciones finales y un anexo.

Los artículos 1 y 2, así como las disposiciones adicionales y finales y el anexo, coinciden (literalmente) con el texto que ya se contenía en el anteproyecto de Ley de medidas presupuestarias urgentes para el ejercicio 2019, que ya fue objeto de informe por esta Dirección (IL-DDLCN 6/2019). En concreto, los artículos 1 y 2, respectivamente, coinciden con los artículos 3.2 y 5 de aquel anteproyecto; las disposiciones adicionales primera y segunda del que ahora analizamos reproducen, respectivamente, el contenido del artículo 7 y del inciso primero del primer apartado y el apartado tercero de la disposición adicional primera de aquél; y las disposiciones finales y anexo del actual anteproyecto son literales de las contenidas con la misma numeración en el anteproyecto anterior.

Así, el artículo 1 del presente anteproyecto establece las dotaciones presupuestarias destinadas durante el ejercicio 2019 a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, modificando el importe en los presupuestos prorrogados, con el fin de financiar el correspondiente incremento de dotaciones.

El artículo 2 se refiere al módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados y se remite al anexo, en el que se recogen, con carácter de máximo, los componentes del módulo y sus respectivos importes por cada nivel educativo, con la única excepción del concepto de antigüedad, que se adecuará a la antigüedad real de cada profesor o profesora (apartado 2) y las cotizaciones a la Seguridad Social del profesorado sujeto al sistema de pago delegado, que serán las que se determinen en la Ley de Presupuestos Generales del Estado (apartado 3).

La Disposición Adicional primera se refiere a la financiación e indica que se realizará de conformidad con el artículo 133 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, y, en su caso, con cargo a remanentes de tesorería.

El citado artículo 133 prevé que, durante el periodo de prórroga de los Presupuestos Generales, el régimen de aportaciones de las Diputaciones Forales a la Hacienda General del País Vasco se sujetará a lo que establezca el Consejo Vasco de Finanzas Públicas para ese año.

La Disposición Adicional Segunda incluye la autorización al Gobierno, así como la obligación de dar cuenta al Parlamento Vasco, en relación con las operaciones realizadas al amparo de la citada disposición.

En cuanto a las disposiciones finales son las habituales de autorización al Gobierno para el desarrollo y ejecución de la ley y su entrada en vigor.

Así mismo, el anexo del anteproyecto reproduce literalmente el que acompañaba al anteproyecto que fue objeto del Informe de Legalidad y especifica desglosadamente los módulos económicos necesarios para el sostenimiento de los centros concertados.

III. CONCLUSIÓN

A la vista de lo expuesto, y considerando que la disposición proyectada se ajusta a la finalidad perseguida y a los parámetros de legalidad aplicables en la elaboración de disposiciones normativas, se informa favorablemente.

Este es el informe que emito, que someto a cualquier otro mejor fundado en derecho.

En Vitoria-Gasteiz, a cuatro de febrero de dos mil diecinueve.



Xabier Unanue Ortega

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaria

Director de Desarrollo Legislativo y Control Normativo

Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, HEZKUNTZA ARLOKO 2019KO EKITALDIRAKO PRESAKO AURREKONTU-NEURRIEI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUARI DAGOKIONA

11/2019 DDLCN - IL

I. SARRERA

Ogasun eta Ekonomia Sailak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari eskatu dio aipatutako lege-aurreproiektuaren gaineko nahitaezko legezkotasun-txostena eman dezala.

Txosten hau emateko, oinarri hartu dira honako hauek: alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legeak 5.1.a) artikuluan Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiari agindutako eginkizunak (Araubide Juridikoaren Sailburuordetzara atxikita dago Zerbitzu Juridiko Nagusia) eta, bestetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuak Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari 14.1c) artikuluan emandako eskumenak. Horrez gain, oinarri hartu da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikuluan xedaturikoa. Izan ere, azken artikulua horretan adierazten den moduan: «Xedapen orokorretako proiektuetan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena behar ez denean, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio nahitaezko legezkotasun-txostenak egitea, xedapen horiek gauzatzeko prozeduraren barruan».

II. LEGE-AURREPROIEKTUAREN GAINKO KONTSIDERAZIOAK

A) Xedea

Txosten honi dagokion lege-aurreproiektuaren helburua da xedapen batzuk ezartzea –bi artikulua, bi xedapen gehigarri, azken bi xedapen eta eranskin bat–, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018rako aurrekontu orokorrak 2019ra luzatzeko araubidea osatzeko, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legea osatzeko, zeinaren indarraldia 2019ko ekitaldira luzatzen baita. Zehazki, neurri horien bidez, luzapenak eragindako zenbait arazo konpondu nahi dira premiaz eta berehala, eta lege-mailako arau bat behar da haiek aplikatu ahal izateko. Hauek izan daitezke neurri horietako batzuk: UPV/EHUrako aurrekontu-zuzkidura finkatzea eta hezkuntza-itunen moduluen osagaiak eguneratzea.

B) Izapideak

Lege-proiektuak egin eta onartzeko prozeduraren bidez, gobernu autonomikoak funtzio legegilean parte har dezake, eta, hortaz, bere politika publikoak artikulatu ditzake lege-mailako arauen bitartez.

Horrenbestez, Gobernu Kontseiluak aintzat hartu behar du lege-aurreproiektu hau, nahitaezko txostenak, aurreikusitako memoriak eta aurrekari zehatzak kontuan hartuta; hala, organo horrek, zeinak saio berean erabakiko baitu aurreproiektuari azken onespina eman ala ez, iritzia eman ahal izango du xedapenaren beharrari eta egokitasunari buruz (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 12. eta 13. artikulua).

Era berean, gogoan izan behar da, aurrekontu-lege guztiekin gertatzen den bezala, eta bat etorritik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluaekin, aurreproiektu hau berariaz salbuetsita dagoela kontsulta-organo horren irizpena eskatu behar izatetik. Hori dela eta ematen da legezkotasun-txosten hau, oinarritzat dituen arauak sarreran aztertzean azaldu dugun moduan.

C) Aurreproiektuaren izaera juridikoa

Euskadiko aurrekontu-araubideari buruzko legezko xedapenen testu bateginak –irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuak onartua–, IX. tituluan, 127. artikulutik 134. artikulura, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak luzatzeko araubidea erregulatzen du. Erregulazio horrek aukera ematen du aurrekontua betearazteko, bai egitura-gastuei dagokienez, baita aurreko ekitaldietatik eta luzatu den ekitaldian amaitu ez diren programa edo jarduketetatik eratorritako konpromisoari dagokienez ere.

Baina, erregulazioa behin-behinekoa denez, zenbait aurrekontu-zuzkidura izoztu egin behar dira, eta ezin dira gauzatu aurreko ekitaldiko aurrekontuetan aurreikusi ez ziren jarduketak.

Hori horrela, aurreproiektuak xedapen batzuk ezartzen ditu, alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018rako aurrekontu orokorrak 2019ra luzatzeko araubidea osatzeko, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legea osatzeko, zeinaren indarraldia 2019ko ekitaldira luzatzen baita. Neurri horien bidez, aurretik esan den bezala, UPV/EHUrako aurrekontu-zuzkidura finkatuko da eta hezkuntza-itunen moduluen osagaiak eguneratuko dira, besterik ez.

Arau honek ez ditu sarreraren eta gastuen egoera-orri zehatzak onartzen, baizik eta, luzapen-erregimena arautzen duten arauen araberrako sarreraren eta gastuen egoera-orriak oinarri hartuta, aldaketa eta egokitzapen osagarri batzuk gauzatzen ditu.

Horren inguruan, eta aipatutako aurreproiektuaren izaera juridikoari dagokionez, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 6.3. artikulua honako hau ezartzen du: «Euskadiko Aurrekontuetako Legeen barruko arauak aldatu edo osatzeko legegintzako araurik baldin bada, arau batzuek eta besteek izaera eta errejimen berbera edukiko dute, indarrean egongo diren epea edozein motatakoa izanda ere: arrunta nahiz luzatua».

Aurrekoa ikusirik eta aurreproiektuaren helburua kontuan harturik, bistakoa da txostena egiteko eskatu den arauak aurrekontuen legeen izaera eta araubide berbera dituela.

D) Edukiaren azterketa

Txosten honi dagokion lege-aurreproiektuak zioen azalpen bat dauka, bai eta bi artikuluko xedapen-zati bat eta azken zati bat ere, bi xedapen gehigarri, azken bi xedapen eta eranskin bat dituena.

1. eta 2. artikulua, xedapen gehigarriak eta azkenak eta eranskina bat datoz (hitzez hitz) 2019rako presako aurrekontu-neurrien legearen aurreproiektuan jasotako testuarekin, zeina Zuzendaritza honek jada aztertu baitzuen txosten bidez (IL-DDLCN 6/2019). Zehazki, 1. eta 2. artikulua, hurrenez hurren, bat datoz aurreproiektu haren 3.2 eta 5. artikuluekin; orain aztergai dugun aurreproiektuaren lehen eta bigarren xedapen gehigarriak, hurrenez hurren, bat datoz aurreko aurreproiektuaren 7. artikuluekin eta lehen xedapen gehigarriaren lehen eta hirugarren atalekin; eta oraingo aurreproiektuaren azken xedapenak eta eranskinak, azkenik, hitzez hitz jasotzen dute aurreko aurreproiektuaren zenbaki bereko xedapenen edukia.

Horrela, oraingo aurreproiektuaren 1. artikulua Euskal Herriko Unibertsitateari 2019ko ekitaldirako emango zaizkion aurrekontu-zuzkidurak ezartzen ditu, luzatutako aurrekontuen zenbatekoak aldatuta, zuzkidura horien igoera finantzatzeko asmoz.

2. artikulua itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-moduluari buruzkoa da, eta eranskinera igortzen gaitu, non maximo moduan jasotzen baitira moduluko osagaiak eta haien zenbatekoak hezkuntza-maila bakoitzeko, salbu eta antzintasun-kontzeptua –irakaslearen benetako antzintasunari egokituko zaio– (2. apartatua) eta ordainketa eskuordetua duten irakasleen Gizarte Segurantzako kotizazioak –Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak zehaztutakoak izango dira– (3. apartatua).

Lehen xedapen gehigarria finantzaketari buruzkoa da, eta esaten du Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 133. artikuluari jarraituz egingo dela finantzaketa (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartzen du testu bategin hori), eta, hala badagokio, diruzaintzako geldikinen kargura.

Aipatutako 133. artikulua aurreikusten du foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari egiten dizkioten ekarpenen araudiak Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak urte horretarako ezartzen duenari jarraituko diola aurrekontu orokorren luzapen-aldian.

Bigarren xedapen gehigarrian Jaurlaritzari emandako baimena jasotzen da, bai eta xedapen horren babesean Eusko Legebiltzarrari gauzatutako eragiketen berri emateko betebeharra ere.

Azken xedapenak, berriz, Jaurlaritzari legea garatu eta gauzatzeko eta indarrean jartzeko baimena emateko ohiko xedapenak dira.

Era berean, aurreproiektuaren eranskinak hitzez hitz jasotzen du legezkotasun-txostena eman zitzaion aurreproiektuaren eranskinaren edukia, eta banan-banan zehazten ditu itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko behar diren modulu ekonomikoak.

III. ONDORIOA

Azaldutako hori guztia ikusita, eta aurreproiektua lortu nahi den helburura egokitzen dela eta xedapen arauemaileak egiteko orduan bete beharreko legezkotasunaren parametroak betetzen dituela aintzat hartuta, aldeko txostena ematen da.

Txosten hau egiten dut, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste baten mende jartzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko otsailaren 4an.

Xabier Unanue Ortega
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza
Director de Desarrollo Legislativo y Control Normativo

Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco

VII

INFORME DE CONTROL ECONÓMICO-NORMATIVO / KONTROL LEGE-EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA

**LEGE-PROIEKTUA,
HEZKUNTZA ALORREAN 2019KO
EKITALDIRAKO PRESAKO
AURREKONTU-NEURRIEI
BURUZKOA**

**PROYECTO DE LEY DE
MEDIDAS PRESUPUESTARIAS
URGENTES PARA EL EJERCICIO
2019 EN MATERIA EDUCATIVA**

**INFORME DE CONTROL ECONÓMICO-NORMATIVO, QUE EMITE LA OFICINA DE CONTROL ECONÓMICO EN RELACIÓN CON LOS ANTEPROYECTOS DE LEY DE MEDIDAS PRESUPUESTARIAS URGENTES PARA EL EJERCICIO 2019 EN MATERIA DE RETRIBUCIONES Y OTROS ASPECTOS RELATIVOS A LA PRORROGA, EN MATERIA EDUCATIVA Y EN MATERIA DE RENTA DE GARANTÍA DE INGRESOS.**

